

INCOMUNICACION

Boletín mensual contra la tortura. **OCTUBRE 2007**

LASA ETA ZABALA
BIHLOTZ GEIAGO
ETSIAK ERARANAK
URTEA IGARO
ZUEN ODOLA GURE
BIOTZEAN DAGO
HANDKAN EZ ZAITUZTE
NORK ERAMANGO



**JOXI
ZABALA**
ta
**JOXEAN
LASA**
Gogoan
zaituztegu
EGIA AITORTU
ETA
ERRESPETATU

(Pags. 2 y 3).

Entrevista

FRANCISCO ETXEBERRIA. (P a g s . 3 , 4 , 5 , 6 y 7) .

Ante la queja de los Médicos Forenses de la Audiencia Nacional contra la posibilidad de que médicos de confianza de las personas detenidas puedan examinarlas durante su estancia en dependencias policiales. (P a g s . 9 y 10) .

Torturaren aurka «konpromiso zehatzak» hartzeko eskaera ez du onartu Eusko Legebiltzarrak. (Pags. 10 y 11).


Sacando musculo - Julen Arzuaga - (Behatokia) (P a g s . 11 y 12) .

Santurtziko Torturaren Kontrako Taldea

<http://torturano.bitacoras.com>

santurtzi.tkt@gmail.com

Se cumple el 24 aniversario de una desaparición que sacudió a la sociedad vasca.



Hace 24 años, mercenarios del GAL secuestraron a los militantes de ETA **Joxean Lasa** y **Joxi Zabala**. Sus restos fueron identificados hace 12 años en una fosa de Alicante, y su recibimiento en Euskal Herria fue multitudinario y cargado de

Veinticuatro fueron los años que se cumplieron el pasado 16 de octubre de la desaparición de los tolosarras Joxean Lasa y Joxi Zabala, después de que dos desconocidos los abordaran en Baiona cuando se disponían a acceder al automóvil con el que pretendían acudir a las fiestas de un municipio cercano. Aquel 16 de octubre de 1983 los dos refugiados políticos de Tolosa fueron secuestrados por el GAL para, después de sufrir brutales interrogatorios y torturas incesantes, ser ejecutados por disparos y enterrados en cal viva en una fosa en la localidad alicantina de Busot. Cinco fueron las personas condenadas por el «caso Lasa-Zabala», pero siete años más tarde de celebrarse el juicio en la Audiencia Nacional española, ninguno continúa encarcelado.

«Han caídos dos peces medianos». Estas fueron las palabras que empleó el general de la Guardia Civil y jefe del acuartelamiento de Intxaurren Enrique Rodríguez Galindo al gobernador civil de Gipuzkoa, Julen Elgorriaga, para describir el secuestro de los dos jóvenes militantes. La misma noche del 16 de octubre de 1983 Galindo viajaba con Elgorriaga hacia las inmediaciones de Oñati, donde se había producido un atentado. Aún no saltaron las alarmas del secuestro. Horas después, ya por la mañana, el dueño del automóvil en el que Lasa y Zabala se iban a trasladar encontró el vehículo en el mismo lugar que el día anterior; en el interior se encontraba un abrigo, el de Joxean Lasa, y síntomas de haberse producido un forcejeo.

Por aquel entonces la «guerra sucia española» había sesgado ya la vida de muchos militantes abertzales, de modo que la desaparición de Lasa y Zabala se contextualizó enseguida como un capítulo nuevo de los ataques parapoliciales españoles. En esta ocasión, del GAL. El 21 de enero de 1984, un comunicante que decía hablar en nombre de este grupo, informó a Radio Alicante de que el día anterior habían matado a los dos jóvenes vascos en un paraje alicantino. No obstante, el hallazgo de los cadáveres se produjo un año después por un cazador, y de forma casual, en Busot, Alicante. Pero no fueron identificados y el juzgado alicantino archivó el caso y mantuvo los restos mortales de Lasa y Zabala en el depósito de cadáveres de la ciudad. Gracias a la inoperancia de la administración, que por un error no inhumó los cadáveres, y al recelo del inspector jefe de la comisaría de Alicante, Jesús Eugenio García -que falleció en 1999 después de padecer un infarto en mitad de su declaración en la Audiencia Nacional en el juicio celebrado por este caso, en extrañas circunstancias-, quien siempre pensó que se podría tratar de los restos mortales de los dos militantes abertzales desaparecidos.

Identificados en marzo de 1995.

El policía prosiguió las pesquisas por su cuenta. Hasta que en marzo de 1995 se supo la identidad de los fallecidos: Joxean Lasa y Joxi Zabala. El especialista en Medicina Legal y Forense Francisco Etxeberria fue quien confirmó

la identidad de los dos cadáveres. La convulsión social y política se apoderó enseguida de Euskal Herria; también del Parlamento de Lakua -un parlamentario de HB lanzó un saco de cal sobre el escaño del consejero de Justicia, Ramón Jauregi-.

Y más si cabe, cuando el 21 de junio de 1995, casi dos meses después de la confirmación de la identidad, los restos de Lasa y Zabala llegaron al aeropuerto de Hondarribia.

Difícilmente se borrarán de la retina de miles de vascos las imágenes de la brutal carga que llevó a cabo la Policía española en el interior del aeropuerto. Hubo decenas de heridos, entre los que destacaban los propios familiares de Lasa y Zabala, parlamentarios y dirigentes de Herri Batasuna y los propios abogados de la familia. Horas después fue la Ertzaintza la que practicó otra brutal carga en el mismo cementerio de Tolosa, arremetiendo contra los familiares que pretendían llevar a hombros los féretros.

Cuatro años más tarde, entre 1999 y 2000, la Audiencia Nacional juzgó el «caso Lasa-Zabala». Condenó a 71 años de cárcel a Galindo y Elgorriaga; a 69 años al teniente coronel de la Guardia Civil Angel Vaquero, y a 67 años y ocho meses de prisión a los guardias civiles Enrique Dorado y Felipe Bayo. Todos fueron absueltos de los «delitos de torturas y pertenencia a banda armada». A pesar de haberse destapado el «terrorismo de Estado» practicado en Euskal Herria, los acusados sólo pasaron unos meses en prisión. A día de hoy, están en libertad.

Francisco Etxeberria: «Si se produce un solo caso de torturas hay que reprochárselo a la autoridad judicial, y después a la Policía».



FRANCISCO ETXEBERRIA

Francisco Etxeberria discrepa de los que, y más aún con los cambios propuestos por el juez Garzón, apuntan al papel de los médicos forenses como clave para esclarecer los casos de torturas. El profesional donostiarra apunta a la responsabilidad de los magistrados.

El especialista en Medicina Legal y Forense Francisco Etxeberria cuenta con una dilatada experiencia como médico forense en el ámbito de la Justicia. Como profesional ha conocido muy de cerca casos de torturas tan conocidos como el de Joxean Lasa y Joxi Zabala o el de Unai Romano. Advierte de que «si se produce un solo caso de torturas hay que reprochárselo a la autoridad judicial, y, como secundario, a la Policía». ¿Por qué? Etxeberria entiende que una persona es detenida por orden directa o bajo el conocimiento de un magistrado, por lo que de facto éste pasa a ser el responsable máximo de todo lo que le pueda ocurrir a la persona arrestada en todo ese periodo de privación de su libertad.

Etxeberria fue el médico forense titular del Juzgado de Instrucción número 2 de Donostia durante la década de los 80. En ese tiempo, asegura, vio todo tipo de casos de malos tratos y torturas. Recuerda cómo «el 100% de los detenidos en delincuencia común, todos, llegaban con algún problema de malos tratos o de torturas». Y qué decir sobre los vascos arrestados bajo la llamada «ley antiterrorista». Ante la continua escalada de casos sospechosos, comenzaron a realizar reconocimientos médicos, también a los acusados de pertenecer a ETA o los Comandos Autónomos Anticapitalistas. Pero subraya que los obstáculos eran continuos y permanentes. El especialista en medicina forense incide en que los cuerpos policiales no estaban acostumbrados a aceptar la autoridad superior del ámbito judicial.

Trae a colación, entre otros aspectos, cómo descubrieron en el ya derruido cuartel de la Guardia Civil del Antiguo un mecanismo sujeto al marco de una puerta para llevar a cabo la práctica de torturas conocida como «la bañera», y cómo el propio juez debió personarse allí para dismantelar el sistema. O cómo una vecina del Antiguo interpuso una denuncia por los incesantes gritos que escuchó por la noche, debido a las torturas que infringían a una persona detenida.

«Unai Romano no murió de milagro».

Pero Etxeberria es consciente de que la sombra de la tortura sigue planeando sobre comisarías y acuartelamientos. Etxeberria fue quien analizó los informes médicos de Unai Romano y concluyó que las lesiones en la cabeza, que trascendieron a la opinión pública debido a una impactante fotografía, procedían de un goteo continuo de golpes. «Unai no murió de milagro», subraya.

Apunta, además, que «la metodología de los interrogatorios también ha cambiado» en estos años, con tendencia hacia la especialización. Tampoco tiene dudas de que las FSE emplean conocimientos de psicólogos «para saber más cosas de las personas detenidas» a través de su caligrafía o de otros mecanismos similares.

Ahondando en el caso de las torturas, Etxeberria hace hincapié en la valoración de Amnistía Internacional sobre cómo vive la sociedad los casos de torturas y por la que entiende también que se mantienen «este tipo de cosas»: AI estima que un 50% de las personas pertenecen a un grupo «que no se cree» que existan las torturas y que el otro 50% «no quiere creérselo». Pero existen. Y, sobre las personas que sufren en carne propia los maltratos, el médico donostiarra incide en que «cada ciudadano responde de modo diferente» a los abusos. Apunta que cuando una persona relata que «me han tenido toda la noche haciendo flexiones» se puede pensar que el detenido exagera, y se desacredita su testimonio. Y eso, al parecer de Etxeberria, supone «un gran problema».

Recuerda cómo el actual fiscal-jefe de la Audiencia Nacional española, Javier Zaragoza, afirmaba cuando trabajaba en el Juzgado de Donostia que «basta que esto ocurra una sola vez en un proceso que se está investigando para que se descalifique la totalidad». Pero justamente en el tribunal español de excepción no se ha investigado ningún caso de las cientos de denuncias interpuestas, casi en su totalidad, por ciudadanos vascos.

En cuanto al papel de los forenses, insiste en que «es un error pensar que el tema de las torturas se tiene que esclarecer con la acreditación del médico forense. Es el juez el que tiene que ser objeto principal del reproche, y después la Policía».

Francisco Etxeberria: «Gizakia gaiztoa da berez».

Noiz entzun zenuen lehen aldiz Franco hitza?

Ez dakit, guri ez zitzaigun ezertxo ere kontatzen. Nik uste jarrera orokorra zela Euskal Herrian. Gerra ez zen gerra bakarrik izan, zoritxarrez gero diktadura bat ekarri zuen, eta ez hiru urteko diktadura, berrogeikoa. Gure gurasoen belaunaldia haurtzarotik heriotzara arte harrapatua gelditu zen. Beraz, haiek, gu babeste aldera, ez ziguten hitzik egiten. Eta nik gehiago jakin dut artxiboetan bila ibilita, etxean kontatutakotik baino. Artxiboetan nire familiari buruzko paperak ere aurkitu izan ditut. Eta pentsa, paper horiekin nire osaba zaharragoei zerbait galdetu izan diedanetan, haien erreakzioa: «Nola enteratu haiz hi horretaz?»

Eta hi nola enteratu haiz Intxaurrondon torturatu egiten dela?

Nahiz eta Intxaurrondo asko aipatu, garai hartan, tortura gehienak Antiguako auzoko Guardia Zibilaren Komandantzia zen hartan gertatzen ziren. Maiz izan nintzen han, nahiz eta trabak jartzen zizkidaten. Adibidez epailearen aginduz nentorrela zioen papera aurkeztu, eta: «Nola dakit nik paper hau benetakoa edo gezurrezkoa ote den?» botatzen zuten. «Baina, epaitegian eman berri didate, horra hor epailearen izenpedura» nik, «bai, baina izan daiteke faltsua» berak. Eta orduan komisariara idazkari judicialarekin joaten hasi ginen. Beste batzuetan joan, eta atxilotutako denak erakusten zizkidaten bi izan ezik. «Eta falta diren bi horiek?», «ez, horiek jada ez daude hemen, lekuz aldatu dira». Eta ziur egon nintekeen, epaiketa egin eta kartzelara pasatutakoan okerren egongo ziren biak erakutsi nahi izan ez zizkidaten bi horiek izango zirela. Ez baitzeuden erakusteko moduan. Hain zuzen hori izan zen arrazoietako bat Lasa eta Zabala hiltzeko. Lasa eta Zabala libre utz zitzaizkete, baina eragin zitzaizkieten zaurien gordintasunak ez zuen ahalbidetzen nonbait uztea.

Tira, trabak traba, sartzen nintzen komisarian, eta handik gehienetan ateratzen nuen inpresio tristea zen tratu txarrak gertatzen ari zirela. Badakit adibidez nolakoa zen Guardia Zibilak bainera egiteko zuen dispositiboa. Ate baten markoan kako batzuk zeuden, han ardatz bat jartzen zuten, eta hor lotzen zituzten atxilotuak, manta batean bildu eta bainera egiten zieten. Edo berdin elektrodoekin. Gaur, orain hiru hilabete, eta orain urtebete hortik pasa diren pertsonak kutxa nolakoa den berdin esplikatzen dizute. Beraz, egia hutsa da, gertatu egiten ziren, eta gertatzen dira. Eta horren erantzule dira, bai egiten dutenak, eta bai egiten uzten dutenak. Tartean, autoritate politikoak.

Baina ministroek diote hori dena gezurra dela.

Nik Barrionuevo ere entzun nuen Ser irratan. Iñaki Gabilondo lehengusua dut, eta elkarrizketa batean, hauteskundeak bazetozela eta, «Zuk niri ziurta diezadakezu Guardia Zibilaren kuarteletan ez dela inor torturatuko?», galdetu zion. Eta Barrionuevok baietz. «Nik ziurta diezazuket ni ministro naizen artean ez dudala horrelakorik onartuko.» Politikoaren esaldia, jakina. Baina ministroa hemen dago, eta kuarteltxoan han. Esan ohi den bezala erlijioa gauza bat dela, beste bat eliza, eta beste bat apaiza. Ministroarekin berdina gertatzen da. Ministroak zer jakingo du honi buruz? Ez daki ezer! Elkarrizketa baterako gutxien interesatzen zaizkidan pertsonak dira ministroak, postuko komandantea elkarrizketatu beharko litzateke, alegia, inoiz elkarrizketatu ezingo dena.

Zuk, izango zenuen aukera torturatzailleekin hitz egiteko. Zuri galdetu behar, nolako pertsonak dira? Guztiz normalak. Burugabekeria bat da pentsatzea psikopatak direla, edo eroak.

Baina eroarena egiten duen jende asko dago, eta ez torturatzailleetan bakarrik, epaileetan ere bai. Alferrik saiaturko zara, ez dute torturarik ikusten.

Amnesty Internationalek oso ongi esplikatzen ohi du hori. Torturari dagokionez, mundua bi taldetan bereizten da: sinestu ezin dutenak, eta sinestu nahi ez dutenak. Epaileetan ere hala da. Niri gertatu izan zait, atxilotu bat ikusi, epaile batengana joan, «nik uste dut hau gertatzen ari zaiola, joango al gara bihar berriz?» galdetu, eta epaileak ezetz: «Ez, ez dago zertan joanik». Eta ez baldin badago zertan joanik, nik ezin dut joan. Epaileen babes osorik gabe ez da hain erraza gure lana egitea.

Nola lortu da batzuetan torturatzaillea kondenatua izatea?

Guk poliziaren akatsak bakarrik frogatu ahal izan ditugu, hanka sartu dutenetan bakarrik egiaztatu ahal izan da tortura. Eta orduan kondenatuak izan dira. Baina poliziak oso ongi daki hau guztia nola egin, oso metodologia zehatza dute guk tortura kasu bat bera ere ez deskubritu ahal izateko. Gainera epaileak eskua sartzen hasi diren neurrian, pixkanaka, beraiek ere tentu handiagoarekin jokatzeko hasi dira. Esate baterako, torturatzeko metodologia aldatu egin da garai batetik. Diktadura frankistaren garaian eta demokraziaren hastapenetan, norbait atxilotzean, itaunketak polizia ezberdinek egiten zizkioten, polizia bakoitza akusazio batez arduratzen zen. Eta txandan-txandan joaten ziren atxilotuarengana bakoitza bere galdera eta bere metodoekin. Joxe Arregi hil zenean, esaten da, Madrilen zebiltzan polizia guztiak erori zitzaizkiola gainera, eta txikitu egin zuten. Baina, urteak pasa ahala teknika hori aldatu egin da, eta orain itaunketa daramatenak beti dira berdinak, galde gaia bat izan edo bestea izan. Ez dut esango finagoa denik, baina ez da hain kirtena.

Auzitegiko medikuak inpartziala eta neutrala izan behar al du?

Epaileengatik esan ohi dute epaile batek inpartziala bai baina neutrala ez duela izan behar. Auzitegiko medikuon artean esan ohi dugu, auzitegiko medikuak inpartziala eta neutrala behar duela.

Eta nondik nora pentsatzen du gazte batek, garai hartan, egoera politikoa zegoen bezala egonda, «nik auzitegiko mediku izan behar diat»?

Ordiziako mendi elkartearen nabilela Aranzadiko kide batek hitzaldi bat eman zuen lur azpiko munduaz, kobazuloez-eta. Ni ama birjina agertu balitzait bezala gelditu nintzen. Aranzadin izena eman eta kobazuloetan esploratzen hasi nintzen, ehunka koba ikusi nituen, eta horrek naturarekin eta pertsonekin harremanetan jarri ninduen. Beraz, Valladoliden nengoan artean nire bizitza eta nire ikaskideena oso zen desberdina; ni asteburu oro kobazulo batera joaten nintzen, haiek diskotekara. Eta astelehen oro, bakoitzak bere asteburuko ibilia kontatzen zuenean, nirea guztietan atipikoena izaten zen, «lur azpian ibili naiz bostehun metroko sakoneran». Esango zuten: «Hau ez dago burutik ondo!» Baina ibilera horrek asko markatu ninduen, eta medikuntzaren barruan ere oso bide atipikoa hartu nuen. Medikuen kolegiara joan nintzenez auzitegiko medikuntzara bideratu nahi nuela esanez, Iñaki Barriolak, hemen bide horretatik zebilen bakarrak, harrituta, «auzitegiko mediku? Ezta pentsatu ere!» eragin zidan atzera. 1981a baitzen, eta berak ere mesfidantza handia zuen Justizia Administrazioarekiko. Hura goitik hasi eta beheraino aparatu frankista zen. Justizia Administrazioa da beti mantsoen aldatzen den administrazio organoa. Indar armatuetan ere, hogeita bost urtean aldaketa handia eman da, Justizia Administrazioan ez hainbeste.

Eta sartu zinenean, nolako koba aurkitu zenuen?

Niri iruditzen zitzaidan oso egitura latza hunkitzen ari nintzela, harrobira joan eta harrobia bere indar osoz ikusten duzenez bezala. Baina harrobitik harri batzuk ateratzen dira eta haiekin eskultura eder bat egin zenezake. Eta eskultura ez bada, kale baterako adokinak. Pentsatzen nuen aukera eder baten aurrean nengoela. Milaka kasu gertatzen ziren, eta garbi zegoen azpiegitura hobearrekin egin beharreko lana zela, beste edozein herrialderekin alderatuz hemen oso atzera geundelako. Baina nik aukera handi bat bilatu nuen han, minutu bakoitzeko istorio berri bat azaltzen zitzaidan, aurrekoa baino are interesgarriagoa.

Gogorak ere izango ziren, heriotzak, autopsiak, torturak... Etxera bidean, ikusitako itzalak ahaztea lortzen al zenuen?

Nik nahiko memoria bisual ona dut, eta batzuetan etortzen zaizkit argazkiak gogora. Orain, ETAk bonba bat leherrarazita hil zuen guardia zibil baten irudia datorkit. Auzitegira sarri etortzen zen, drogaren aurkako brigadan zebilelako, eta oroitzen naiz hark nola esaten zuen: «Batek jada ez daki zeinentzat ari den lanean», alegia, ez zekiela beretzat, bere familiarentzat, Guardia Zibilentzat, herriarentzat, edo Mendebaldeko ongizatearentzat, norentzat ari zen lanean. Eta bonba bat lehertu zela-eta gorpua altxatzera joan nintzenez, hura ikusi, eta sekulako kolpea hartu nuen, ezagutzen nuen, bera zen. Orduan buelta asko eman nizkion berak esaten zuen esaldi horri: «Batek ez daki zeinentzat egiten duen lan». Pentsa, hau ere gerta dakizuke.

Badira tragikoagoak ere, esaterako tratu txarrak jasaten dituen eta sinesten ez dioten emakumearena. Bere egia ez da aski agerian gelditzen, eta orduan beste ordain bat jasotzen du, esanez, berak asmatu duela hori dena. Funtsean, gogorragoa da bizirik sufritzen ari den bat ikustea hildako bat ikustea baino. Nik liburu bat idatzi ahal izango banu egun batean, «hildakoek ez dute sufritzen» jarriko nioke titulua. Sufritu bizi garenok egiten dugu. Eta hori sekulako desgrazia da. Askotan planteatu ohi diet kriminologi institutura etortzen diren zuzenbideko irakasleei, esplika diezadatelara zergatik ez den larriagoa tortura heriotza baino. Eta zer esanik ez funtzionario batek, bere lanbidearen barruko praktika bezala, eta instituzioaren babesarekin, torturatzen baldin badu. Hori niretzat norbait hiltzea bezain larria da.

Tratu txarrak ezin sinestarazi, torturak ezin frogatu, zure hitzak zenbateko pisua du epaian?

Kasuan-kasuan aldatzen da. Pertsona bat agertzen bada hilik, eta auzitegiko medikuak esaten badu heriotza naturala izan dela, eginbideak automatikoki artxibatu egingo dira. Baina auzitegiko medikuak bestelako heriotza izan dela esaten badu, epailea derrigortua dago ikerketarekin segitzera. Eta auzitegiko medikuak, horrez gain, zehaztu behar du homizidio bat den, suizidioa den, edo istripuzko heriotza den. Epaile baten inbestigazioa oso baita ezberdina, bat edo beste izan. Beraz, bada garrantzitsua gure hitza. Baina hori bai, iritzi bat ematen dugunean argumentu tekniko eta zientifikoetan oinarritu behar dugu, eta konbentzitu egon diogunarekin, edo bestela aitortu ez gaudela ziur. Zenbait epailek teknikorik onena batzuetan zalantza egiten duena dela esaten dute. Inoiz dudarik ez duen teknikoak, nahiz eta munduko jeinurik handiena izan, bera da nahiko dudakoa.

Sententziak zer begirekin irakurtzen dituzu?

Justizia administratibotik gutxien interesatzen zaizkidanak dira. Pentsa zenbateko garrantzia duten sententziek, pertsona baten bizitza baldintzatu dezakete, baina niri hori ez zait batere interesatzen, ni instrukzioak apasionatzen nau, inbestigazioak, ulertzen saiatzeak nola den posible mutiko batek bere andregai itotzea. Ito duela ziurra da, hilotza dagoeneko lurpean dago, baina zuk pertsona horrekin hitz egitea izugarri interesgarria da. Etengabe ari zara giza gatazkei buruz eztabaidan. Eta hori ez duzu kalkulu matematiko baten bidez ebazten. Gero, horren ondotik epaile batek sententzia bat eman behar diola auziari? Kondenatzen duela? Barkatzen diola? Niri sententziak ez dit ezer esaten. Gainera, gehienetan ez naiz ados egoten. Sententzia bat beti izango da idatzi pobre eta osatu gabe bat, nahiz norabide bat ematen duen kasuari buruz.

Zer ulertzen diozu andregai ito duen mutikoari?

Fraideetan belarrondoko asko ikusi dut nik ematen, eta ohartzen naiz belarrondoko bat bera ere ez zuketela eman behar. Joka ibiltzea frakaso bat da, baina txikitatik jaso dugun kulturaren baitan dator, eta horren ondorio dira tratu txarrak. Eztabaida bat kolpeka bukatzea onetsi egiten dugu. Maiz pentsatu izan dut hezkuntza gatazkak konpontzea lantzen duten irakasgaiak sartu beharko lituzketela. Niri hortzak nola garbitu erakutsi didate, erakutsi higiena nola zaindu, baina inor ez zait etorri bizitzan sortzen diren gatazkak nola konpondu behar ditudan azaltzera. Eta gizakiak, beste animaliek ez bezala, oso erraz konplikatzen du bere existentzia. Eta bere existentzia konplikatzean besteekin tirabirak edukitzea gertatzen zaio. Baina ez digute erakutsi elkarri muturra txikitu gabe gatazkak konpontzen.

Ez duzu oso oroitzapen ona fraide eskola hartaz...

Oroitzen dudan gauzarik tristeena fraideek haurrak nola jotzen zituzten da. Nire etxean ez dut inoiz inor jotzen ikusi, eta klaseetan, izututa egoten nintzen prestakuntza pedagogiko gutxiko fraide batek arazoak nola konpontzen zituen ikustean. Dena zen belarrondokoa. Eta kastiguaren beldurrez ikasten genuen, ez hura oso interesgarria zelako. Hori katolizismoaren ezaugarria da, beti beldurrez edukitzea bestea. Bi bide daude bizitza honetan gauzak egiteko: bat da bide erraza, eta bestea zaila. Bada bide zailatik egingo duzu.

Ikasiko zenuten Rousseauk zioena ere, gizakia basatia baina ona dela berez.

Nik ez dut sinesten. Gu, hain zuzen ere, kulturak erakutsitako zenbait alderdigatik gara garen neurrian onak. Gu gaiztoak gara berez. Gure existentzia eta gure inguru guztia korapilatzeak gai gara, egoistak gara, lagunari hesteak aterako genizkioke. Kulturak eragiten digu atzera. Kristautasunak puntu bakarrean ematen dit konfiantza, hurkoarengan pentsatu behar horretan. Gainontzeko guztia ez dut ulertzen, baina bestearengan pentsatzea oinarritzko balore bat da. Eta horrek frenatzen nau ni bidean harrapatzen dudana edozeinen gainera jauzi egitetik.

Beste batzuek diote kartzela dela piztia otzantzen duena, zigor gogorra behar dela.

Zigorra ere kultura katolikoaren baitan dago. Etengabe ari gara ondokoa zigortzen, agurra ukatuz, beragatik gaizki hitz eginez, edo fisikoki zigortuz. Batzuetan galdetzen diot nire buruari ea jarrera hori unibertsala ote den, eta susmoa dut kultura katolikoarena dela. Gu sufritzera etorriak gara mundura, eta zerura iristean askatuko gara, bitartean sufritzea tokatzen zaigu. Hori lelokeria da. Baina hortik datorkigu kriminalari egurra eman behar zaiola pentsatzeko joera, eta horretarako nahiko antzinako bitartekoak ditugu, adibidez presondegia. Kartzelak ez du ezertarako balio. Ez bada prestakuntza gutxiko pertsonak delinkuentek bilakatzeko. Nik ez dut bitarteko horretan sinesten. Eta arraroa egiten zait, gu, askatasun gabetzea dakarren zigorrarentzat, beste medio alternatibo batzuk asmatzeko gauza ez izatea. Ni egon izan naiz pentsatzen, gauean kartzelara joan beharra izan arren, ezingo al lukete eguna baserri bat konpontzen pasa? Agian gizarteak lan behartu bezala ikusiko luke, eta horixe luke txarra. Baina pertsona hori kartzela barruan deus ere egin gabe edukitzea askoz kezkarriagoa da. Hori pertsonari otu dakioken asmakizunik sinpleena da: zulo handi bat egin, han sartu pertsonak, bost urteren buruan tapa zabaldu, eta merezi duena atera. Nik uste iritsiko dela eguna beste bide alternatibo batzuk asmatzeko gai izango garena.

Zuek ere ari zarete zulotik jendea ateratzen, baina gorpu, gerran fusilatuak. Zergatik pasa da hainbeste denbora ateratzen hasterako?

Trantsizio demokratikoa armadak eta eskuinak gidatu zuten. Eta zenbait alorretan «hau ez dugu hunkitu ere egingo» esan zen. Adibidez, diktadura frankistaren eta Espainiako Gerra Zibilaren berrikuspenean, tartean hildakoak eta desagertuak zirela. Eta hori onartu egin zuten gainontzeko alderdi politiko guztiek, horregatik dago denengan erruduntasun konplexu bat, bai gudan ere, nigan, nire familiarengan, auzokoengan... orduan ez zelako ezer egin.

Zer esanahi du gorpuak lurpetik ateratzeak?

Nik Irakeko kasua jartzen dut. Estatuatuarekin ez zaie inporta gerran hiltzea, baldin eta herriagatik hiltzen badira, baina hilotza ez berreskuratzeak min ematen die. Ez sinestekoa da Bigarren Mundu Gerratik amerikarrek zer ahalegin egin duten beren herritik kanpo hiltzen diren soldadu guztien hilotzak berreskuratzeke. Horri sekulako garrantzia ematen diote. Beraz, nik, gorpuak lurpetik ateratzean zabaldu nahi dudan mezua honakoa da: gerran ez dira soldaduak bakarrik hiltzen, jende arruntena ere hiltzen da. Eta gerrak biztanleria osoari eragiten dio. Hemen ez da gelditu gerrak hunkitu gabeko familiarik.

Zenbat aterako dira lurpetik?

Oraingoz laurehun familia zuzendu dira guregana, eta nik kalkulatu dut guk %10 bat aterako ditugula. Gehienak ez ditugu aurkituko, haietako asko iritsi ezin den lekuetan daudelako, bide baten azpian, autopista azpian... Baina %10 hori belaunaldi oso baten ordezkari izango da. Laborategi honetan orain bertan 50 eskeleto baino gehiago daude. Horietako bakoitza izen eta abizendun pertsona bat da, eta familia bat du atzean. Gainera, hil zituztenen artean, gehienago errepublikarra edo ezkerrekoa zen, baina ez zen inplikazio politiko handikoa. Politikan sartua zebilena ordurako alde egina zen, hauek salbatuko zirela uste eta herrian gelditutakoak dira. Baina frankistak iritsi zirenean aukeraketa egin zuten: «Hemen zein akabatuko dugu? Hau, hori eta hura». Apaizak bazuen hitza: «Ez, hau ez, hau salbatu egingo dugu. Baina hura akabatu», «Zergatik?», «taberna bat baduelako errepublikarrak batzen direna». Hala izan zen. Eta gu, orain, ez gara eskeletoak berreskuratzen ari, beraien duintasuna berreskuratzen ari gara. Nahiz eta hildakoak duintasuna ez duen sekula galdu.

Izen batekin hasi gara, Francorekin, bukatzeko beste izen bat entzunaraziko dizut: Don Cesario Ugarte. Nor zen?

Beasaingo medikua. Nire aita hamar urte nituela hil zen, etxean, eta akordatzen naiz, nola artatu zuen Don Cesario Ugartek. Gero, ni ere sendatu ninduen. Hamahiru urterekin meningitisak jota bainengoen. Eta handia da, Don Cesario Ugarte, niri, etxeko ohean, bizkar rezurreko ziztada bat emateko gai izan zen. Gaur egun ere ez da hori hola eta hola egiten, eta ohartzen naiz Don Cesario dena in situ konpontzeko gai zen mediku horietarik zela. Horrekin bizitza salbatu zidan, urgentziaz ospitale batera eramanez ahal izan baininduten, eta han hilabetez sendatu nintzen. Baina kuriosoena da Don Cesario Ugarte fusilatu baten semea zela. Bere aita Beasainen fusilatu zuten frankistek, inongo arrazoirik gabe, jendea kalean zebilela «zu hona, zu hara!» bereizi, eta gau batean alde bateko hogeit hamar fusilatu zituztelako. Hogeit hamar lagunetako bat Don Cesario Ugarteren aita zen, eta historiak dio, Don Cesario Ugartek, bere aita hil eta bizpahiru egunera, zauritutako soldadu batzuk artatu behar izan zituela. Eta artatu zituen. Bere aita hil zuten soldaduak ziren.

**EGIA AITORTU ETA
ERRRESPETATU**

Bi polizik auzitegi nazionalean deklaratu dute Maite Orue gernikarrak 2005. urtean jarritako tortura salaketa dela-eta.

TATEko abokatuek jakinarazi dutenez, bi polizia hauek bigarrenagoz izan dira deklarazterea deituak, irailean huts egin baitzuten. Polizia batek gezurra esan eta torturarik burutu ez zutela esan du. Torturatzeaz akusaturik, inputatu gisa deklaratu dute gaur bi polizik auzitegi nazionalean, Maite Orue gernikarrak 2005. urtean jarritako tortura salaketa dela-eta.

Maite Orue 2005.eko uztailaren 27an atxilotu zuela Polizia Nazionalak, eta lau egun inkomunikatuta egon ondoren tortura salaketa ezarri zuela. Epailearen aurrean ere salatu zituen torturak. Bi polizia hauek bigarrenagoz deituak izan dira deklarazterea, izan ere, irailean zituak izan baziren ere, huts egin zuten.

